

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Klara Badiola Zubillaga

*Donostia,
Gipuzkoa
(1954)*

Aurkibidea



Biografia



Parte Zaharrean jaioa. Ama Altzakoa zuen, Herrerakoa, eta aita donostiarra (aitaren aldeko amona Andoaingoa). Etxean euskaraz hitz egiten zuten arren, ikasketak gaztelaniaz egin zituen: San Bartolome moja-ikastetxera joan zen umetan. Ondoren Filologia Erromanikoa ikasi zuen Deustuko unibertsitatean. Irakasle lanetan hasi zen, baina antzerkigintzari heldu zion gero. Xaribari pailazo taldeko kide zen, eta Herri Irratian haurrentzako programa bat egiten ari zela, 1981ean "Segoviako ihesa" filmean parte hartzeko aukera izan zuen. Antzerti eskolan eman zuen izena, eta geroztik antzeztea izan du lanbide. Zinema, telebista zein antzerkia, denetik jorratu du, bere ibilbide oparoan. Aktore ezaguna da. San Telmo museoan egindako elkarrizketa.

Zintak

DON-210

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-10-08
- **Iraupena:** 111 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Guraso eta aiton-amonen jatorria

- **Erref:** DON-210/003
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:45. **Bukatu:** 00:01:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Donostiako Parte Zaharrear jaio zen, Euskalerrria kalean. Lehen Ensantxea deitzen zitzaion. Aita donostiarra zuen; aitaren aldeko aitona donostiarra zen eta amona Andoaingo Sorabilla auzoko baserri batekoa. Klararen ama Herrerakoa zen, aitona Altzako baserri batekoa.

Transkripzioa

Ni jaio nintzen Donostiko Parte Zarrean. Bueno, Parte Zarra esaten deu, baina beti lehen zan Ensantxea. Euskal Herria kalean jaio nintzan, eta hantxe oraindik nere... nere ahizpa bizi da. Nere gurasoak, ba, aitta donostiarra zan, aitaren... ui, aitaren aldeko aitta ere donostiarra eta amona Andoaingo zen, Sorabillakoa, baserri batekoa, eta hona etorri zien bizitzea. Eta ama zan Herrerakoa, eta bere aita Altzako baserri batekoa ere bai, Altzan. Ordun Altza zan herri txiki bat, oso oso-oso txikia, ba, hori, 4 baserri ta eliza eta besteik ez. Oain Altza beste beste gauza bat da. Eta jun zian Herrera bizitzea. Eta gero ama etorri zan Donostira eta hemen jaio nintzan ni, hor Ensantxian, oin Parte Zaharra, baino beti, betidanik hor bizi izan gea. Eta orain ere Parte Zaharrear, beste toki baten, baina bueltatu bueltatu nintzen honea. Bai, bai.

2. Etxean giro euskalduna, baina kanpoan oso erdalduna

- **Erref:** DON-210/004
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:04:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etzeko giroa

Laburpena:

Euskalduna izan arren, gaztelaniarako joera zuen Altzako aitonak. Aitaren aldeko aitona-amonak ere euskaldunak ziren. Etxean giro euskalduna izan arren, kanpoko giroa oso erdalduna zen. San Bartolome kolegioan ez zen hitzik entzuten euskaraz eta ez zuten jakiten besteak euskaldunak ziren ala ez. Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen. Gainera, gaizki ikusita zegoen euskalduna zinela esatea.

3. Euskaraz alfabetatzeko erabakia

- **Erref:** DON-210/005
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Unibertsitatean hasi zenean, 70eko hamarkadan, euskararekiko jarrera jada desberdina zen. Han ohartu zen euskararen balioaz. Bere euskara murrizta zela pentsatuta, zerbait egin beharra zuela eta baserri batera joan zen

udaran. Orduantxe hasiak ziren euskarazko udaleku eta barnetegiak. Euskaraz hitz egiteko ez zuen arazorik, baina ez zekien idazten. Horregatik euskaraz alfabetatzen hasi zen ikastaroetan. Euskarazko nobelak irakurtzen ere hasi zen. Oso garai politizatua izan zen eta bera orduantxe jabetu zen gauza askotaz, etxean ez baitzen politikaz hitz egiten. Gogoan du 14 urte ingururekin ikusi zuela lehen aldiz ikurrina.

4. Gurasoak euskarazko filma ikustera; euskal musika

- **Erref:** DON-210/006
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Gogoan du, bera umea zela, gurasoak euskarazko `Ama Lur´ filma ikustera joan zirela eta txundituta itzuli zirela. Ahopean esaten ziren halako kontuak. Ez dok Amairu taldearen inguruan dituen oroitzapenak. Ahizpa euskal musika zalea zen, baina berak kanpokoak entzuten zituen gehiago.

5. Umetan euskal dantzak ikasten

- **Erref:** DON-210/007
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:10:51. **Bukatu:** 00:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Umetatik asko gustatzen zitzaion dantza egitea. Berak balleta ikasi nahi zuen, baina amak euskal dantzak ikastera eraman zuen. `Gorrotxa´rekin ibili zen dantza ikasten eta kalera ere ateratzen ziren. Gerora, lagunekin erromerietara ere joaten zen.

6. Umetan antzerkiak eta filmak urrutiko kontua

- **Erref:** DON-210/008
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:13:08. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Umetan Marisolen filmak ikusten zituen. Ez zegoen euskarazko ezer. 15 urte ingurura arte ez zuela antzerkirik ikusiko dio. Askok gustatzen zitzaion mundu hori, baina urruti ikusten zuen. Aitona-amonek Maria Dolores Agirrek irradian egiten zuten saioa entzuten zuten.

7. Bizpahiru urtez larunbatero umeentzat antzezten

- **Erref:** DON-210/009
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Unibertsitatea bukatu eta eskolak ematen hasi zen. Aretxabaletan egin zuen urtebete eta, ondoren, beste bi urte Errenteriako ikastolan. Orduan hasi zen gorputz-espresioa lantzen, horretarako grina zuten hainbat kiderekin (Joseba Urzelai, Jose Ramon Soroiz, Eneko Olasagasti, Santi Egurbide) batera eta pailazo taldea sortu zuten. Txaro Arteagak (orduan Herri Irratian lan egiten zuen) larunbat goizetan umeentzat obrak egitea proposatu zien eta halaxe hasi ziren Kontxu Odriozola eta Enkarni Genua ere tarteko zirela. Bizpahiru urtez jardun zuten astero obrak egiten. Gero umeentzat irratsaio bat ere egin zuen Joseba Urzelarekin batera.

8. Antzerkian eta telebistan nola murgildu zen

- **Erref:** DON-210/010
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

‘Segoviako ihesa’ grabatu behar zela eta jendea behar zutela jakin zuten. Gizonezkoak eskatzen zituzten eta bere taldekideei laguntzera joan zen, baina paper bat eman zioten. Konturatu gabe antzerki eta filmen munduan murgildu zen: antzerkia, telebista, bikoizketa... Bere intuizioari jarraituz, dena utzi eta Antzerti eskolan sartu zen beka batekin.

9. Xaribari taldearekin herrietako umeak alaitzen

- **Erref:** DON-210/011
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:21:11. **Bukatu:** 00:23:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Filologia Erromanikoa ikasi zuen eta, jada lanean zebilela, 1978-1980 inguruan, Xaribari izeneko pailazo taldea sortu zuten. Irabazitako diru apurrarekin bigarren eskuko furgoneta bat erosi eta asteburuetan herriz herri ibiltzen ziren, herrietako umeak entretenitzen, euskal giroan. Beraiek ere oso ondo pasatzen zuten. Taldeko kide asko egon ziren gero Antzerti eskolan.

10. Antzerti eskolako lehen promozioko kide

- **Erref:** DON-210/013
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:23:36. **Bukatu:** 00:25:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Antzerti eskolan lehen promozioko ikaslea izan zen Klara eta oso irakasle onak izan zituzten: Jose Carlos Plaza, Paca Ojea... Madrilgo Layton eskolako eta Bartzelonako institutuko irakasleak. Mundu berri bat ireki zitzaion. Lehen obra `Euripides´ izan zen, euskaraz. Bere amak obra ikusi eta ez zuela ezer ulertu esan zion. ETBren hasieretan ere jendeari gauza bera gertatzen zitzaion euskara batuarekin: euskara arrotza egiten zitzaieela.

11. Jarrai taldea eta "Cómicos de la legua"

- **Erref:** DON-210/014
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:25:45. **Bukatu:** 00:26:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Donostian bazegoen Jarrai antzerki taldea eta uste du haien obraren bat ikusi zuela, baina bera oso gaztea zen artean. "Cómicos de la legua" taldea ere ikusi izan zuen, baina gaztelaniaz antzezten zuten. Berak hori egin nahi zuen, baina euskaraz; eta lortu zuen.

12. Ez dok Amairuren `Baga, biga, higa... sentikaria´ ikuskizuna

- **Erref:** DON-210/015
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:26:49. **Bukatu:** 00:28:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Ez dok Amairu taldearen `Baga, biga, higa... sentikaria´ ikuskizunaren garrantzia. Poesia, bertsoa... Andoni Aleman eta biak Artzerengana joan ziren txalaparta jotzen ikastera. Arratsaldeak pasatzen zituzten hizketan.

13. Bikoizketa lanetan nola hasi zen

- **Erref:** DON-210/017
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:29:47. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

`Segoviako ihesa´ grabatu zuten garaian, filmetako soinua ez zen zuzenean grabatzen, estudioan grabatu behar izaten zen ondoren. Madrilera joan ziren ahotsa grabatzera eta berak erraz egin zuela ikusita, bikoizketarako balio zuela esan zioten. Handik gutxira bikoizketa lanetarako deitu zioten. 1983 inguruan hasi zen. Ez zuen ikastarorik edo bestelakorik egin, bere kabuz ikasi zuen dena.

14. `Segoviako ihesa´ filma

- **Erref:** DON-210/018
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:34:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

`Segoviako ihesa´ filma oso egoera berezian grabatu zen, baina bera une hartan ez zen oso kontziente. Bera esperientzia bat bizitzera joan zen eta zinema barrutik nolakoa zen ezagutu zuen hari esker. Benetako armak erabili zituzten filmean eta guardia zibilak grabaketetan egoten ziren, zaintzen. Euskararen presentzia ere handia zen filmean.

15. `Segoviako ihesa´ filmak zinemarako ateak ireki zizkion

- **Erref:** DON-210/019
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:34:43. **Bukatu:** 00:35:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

`Segoviako ihesa´ filmean parte hartzeak zinemarako ateak ireki zizkion. `La conquista de Albania´ filmerako deitu zioten berehala eta gero `Ehun metro´ etorri zen.

16. `Amama´ filma berezia izan zen berarentzat

- **Erref:** DON-210/021
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:35:32. **Bukatu:** 00:38:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Euskaraz egin dituen hainbat filmen aipamena. `Ehun metro´ 1985ean. `Amama´ filma berezia izan zen berarentzat. `Nora´ filmean euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa nahasten dira.

17. `Ehun metro´ filmean Patxi Biskertekin

- **Erref:** DON-210/023
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:40:19. **Bukatu:** 00:41:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

`Ehun metro´ filmaren grabaketa nola gogoratzen duen. Patxi Biskert `Segoviako ihesa´ filmean ezagutu zuen eta gerora film askotan lan egin izan dute elkarrekin.

18. Besteen azalean sartzeak ematen duena

- **Erref:** DON-210/025
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:41:18. **Bukatu:** 00:45:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

`Izarren argia´ filmeko pertsonaia benetakoa zen. Kasu gehienak ziren benetakoak. Film hunkigarria eta gogorra. Askotan tokatu izan zaio asko sufritu duten emakumeen paperean sartzea. Adinak lagundu egiten duela horretan dio, bizitzak emandako esperientzia duzulako. Besteen azalean sartzea aberasgarria da eta enpatia izaten laguntzen du.

19. Zinema vs. telebista; aurrekontuaren eragina

- **Erref:** DON-210/027
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:45:26. **Bukatu:** 00:49:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zinemaren eta telebistaren arteko aldea. Telebistan dena azkarrago egiten da. Bakoitzak zer denbora eskatzen duen. Telebistan bi kamera jarri eta horiek grabatzen dute dena. Zineman plano ezberdin asko hartu behar. Diruak asko baldintzatzen ditu grabaketak. Lan egiteko modua asko aldatu da: orain dena presaka egiten da. Lehen telesailak lasaiago grabatzen ziren, detaileak ere zainduta; `Jaun eta jabe´ eta `Bi eta bat´, adibidez.

20. `La ratonera´ antzezlanarekin sei hilabetez Madrilen

- **Erref:** DON-210/029
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:49:57. **Bukatu:** 00:51:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

`Segoviako ihesa´ filmeko sekuentzia batzuk grabatzera Madrilera joan ziren. Berarentzat esperientzia izugarria izan zen. Gerora askotan joan izan da Madrilera edo Bartzelonara. Antzerkian `La ratonera´ obrarekin sei hilabete pasa zituzten Madrilen eta egunero antzeztzen zuten. Hemen pentsaezina da hori.

21. Egunero antzezteko aukera; bi hizkuntzatan egin beharra

- **Erref:** DON-210/031
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:52:10. **Bukatu:** 00:54:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

`La ratonera´ antzezlanarekin sei hilabete egin zituzten Madrilen eta gero beste hiru Bartzelonan. Han egunero antzeztzen zuten. Hemen hori pentsaezina da, asko jota hiru saio egiten direlako segidan. "Errodajea" egiteko beharrezkoa da antzezpenak segidan egitea, bestela berriz hutsetik hastea bezala da. Antzerkiak bi hizkuntzatan egitera ere ohituta daude, baina kanpokoak guztiz harritzen dira horrekin.

22. Euskarazko ikus-entzunezkoak beharrezkoak normalizaziorako

- **Erref:** DON-210/032
- **Iraupena:** 0:05:05. **Hasi:** 00:54:06. **Bukatu:** 00:59:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Berak beti eman izan dio garrantzia euskaraz antzezteari. Hizkuntza baten normalizaziorako behar-beharrezkoak dira ikus-entzunezkoak: telebista, irratia, zinema eta antzerkia. Kezkatuta dago gaur egun umeentzako euskarazko gauza gutxi dagoelako bai telebistan eta bai zineman. Bere ustez garrantzitsua da umeak txikitatik antzerkira eramatea eta horretarako euskarazko lan gehiago programatu beharko lirakeke. Ez du ikusten kultura euskaraz bultzatzeko interes handiegirik.

23. Euskarazko zinemagintzan badago talentua

- **Erref:** DON-210/034
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:59:29. **Bukatu:** 01:01:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Azken urteetan oso film onak egin izan dira euskaraz. Talentua badago, bai aktore, bai gidoigile eta bai zuzendarien aldetik. Baina urtean edo bi urtean behin film bat eginda ezin dela horretatik bizi dio; jarraipena eman behar zaiola. Eta horretarako dirua behar da.

24. Aktoreen lana, gorabeheratsua

- **Erref:** DON-210/035
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:01:44. **Bukatu:** 01:03:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Aktoreen lana oso gorabeheratsua da. Batzuetan lan askotan egoten dira batera eta beste batzuetan lanik gabe. Ezetz esatea ez da erraza, ez dakizulako gero zer etorriko den.

25. Aktore izan nahi duenarentzat aholkuak

- **Erref:** DON-210/036
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:03:16. **Bukatu:** 01:06:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Aktore izateko ikasten ari den gazte bati zer aholku emango lizkiokeen. Bere ustez, sentitu egin behar da benetan egin nahi duzuna hori dela. Burua beti ongi izaten saiatu. Luzerako lasterketa bat dela ikusi eta ez nahastu uneko gorabeherekin, fama lortzen den garaiekin, esaterako.

26. Emakumeek paper nagusia eskuratzeko aukera gutxiago adin batetik aurrera

- **Erref:** DON-210/037
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:06:27. **Bukatu:** 01:09:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumezkoei, adin batetik aurrera, gutxitu egiten zaie filmetan paper nagusiak eskuratzeko aukera. Berak "florero" izateko eskaintzen dituzten paperei uko egitea erabaki zuen, baina lan gutxiago egiten da horrela. Orain (H)emen elkarteari esker emakumezko aktoreak, gidoigileak... elkartzen dira eta babestuta sentitzen direla dio. `Alardea´ filmean emakumezkoentzat hainbeste paper egoteak poz izugarria eman zion.

27. Antzerkian publikoarengandik jasotzen den energia

- **Erref:** DON-210/039
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:10:16. **Bukatu:** 01:13:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Antzerkigintza nola bizi duen. Antzerkian hasi eta amaitu egiten da, ez dago etenik. Publikoarengandik jasotzen den energia batzuetan magikoa bihurtzen da.

28. Berak egindako filmak gehienez bi aldiz ikusten ditu

- **Erref:** DON-210/040
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:13:04. **Bukatu:** 01:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Norberak egindako film bat lehen aldiz ikustean txarto pasatzen da. `Nora´ filmarekin izan zuen esperientzia. Oso zorrotz epaitzen du bere burua eta berak egindako filmak gehienez bi aldiz ikusten ditu.

29. Euskarazko lanen aldeko apustua

- **Erref:** DON-210/042
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 01:15:29. **Bukatu:** 01:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Hasieratik bazekien lanak euskaraz egitea garrantzitsua zela. Nahiz eta ikusle gutxiago izan, bere hizkuntzan ari dela eta bere kulturen murgilduta dabilela sentitzen du. Lanak euskaraz egiteak zer ematen dion. Kultura eta euskara,

inportanteak eta beharrezkoak. Askotan gaztelaniazkoak bakarrik egiten dira, jende gehiago joaten delako, baina ez zaio bide zuzena iruditzen.

30. Julio Medem zuzendariaren bi filmetan

- **Erref:** DON-210/044
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:21:28. **Bukatu:** 01:22:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Julio Medem zuzendariaren `Vacas´ filmean parte hartu zuen. Arrakasta handia izan zuen. Gerora `El arbol de la vida´ filmerako deitu zion berriz.

31. `Bi anai´ filmaren berezitasuna

- **Erref:** DON-210/045
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:22:42. **Bukatu:** 01:23:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Bernardo Atxagaren eleberrian oinarritutako `Bi anai´ filmean parte hartu zuen. Imanol Rayo zuzendariaren lan egiteko era berezia aipatzen du; pertsonak ez ezik beste elementu batzuk ere pertsonaia bihurtu zituela dio.

32. Familiako lehen aktorea

- **Erref:** DON-210/047
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:24:55. **Bukatu:** 01:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Familian ez du izan antzerkian edo umoregile gisa ibili den inor, bera izan da lehena. Horregatik amari kostatu egin zitzaion ulertzea nola utzi zuen lana aktore lanetan hasteko. Aitona musikaria zen eta Donostiako bandan jotzen zuen.

33. Ezagun egin duten filmak

- **Erref:** DON-210/050
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:26:55. **Bukatu:** 01:28:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Filmak estreinatzen direnean, denekin lortzen da ospe apur bat, baina bat aipatzekotan `Segoviako ihesa´ aipatuko luke, lehenengo egindako filma, klasiko bat bihurtu delako. Gerora `Vacas´, `Amama´ eta `Nora´ filmekin ere egin da ezagun.

34. Aitona-amonek euskarazko aldizkariak irakurtzen zituzten

- **Erref:** DON-210/052
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:28:42. **Bukatu:** 01:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umetan betidanik ezagutu ditu euskarazko aldizkariak etxean: `Zeruko argia´ eta `Arantzazu´. "Amonaren errebistak" iruditzen zitzaizkion eta berak ez zituen irakurtzen. Amonak eta aitonak euskaraz irakurtzen zuten.

35. San Bartolome mojen ikastetxean klase bereizketa eta euskararik ez

- **Erref:** DON-210/055
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:30:43. **Bukatu:** 01:33:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

San Bartolome mojen ikastetxean klase-bereizketa egiten zen: alde batetik Batxilergoa ikasi behar zutenak eta, bestetik, "Secretariado" egin behar zutenak, pobreagoak. Elizan leku desberdinetan jartzen ziren eta patioan ezin ziren elkartu. Bere ahizpak gogor hitz egiten zuen mojen aurka, umetatik bereizketa hori egiten irakatsi zietelako. Horrez gain, ez zieten uzten euskaraz hitz bat ere esaten.

36. Gurasoen jarrera aurrerakoia

- **Erref:** DON-210/057
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:35:01. **Bukatu:** 01:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Emakumea izan arren, inoiz ez du oztoporik izan bere bizitzan zer egin erabakitzeko. Aitak ikasteko esaten zion beti. Harengandik ikasi zuela irakurtzen dio, beti liburu artean egoten zen eta. Bera izan zen familian karrera bat egin zuen lehena eta aita harro zegoen horretaz. Amari ez zela inoiz ezkonduko esaten zion eta ondo iruditzen zitzaion. Aita Correos-eko funtzionarioa zen eta ama etxeakoandrea. Amak ezkondu aurretik lan egin zuen eta gero ere bai, beraiek koskortu eta gero.

37. Beste ume euskaldun batzuekin elkartzen noiz hasi ziren

- **Erref:** DON-210/058
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 01:39:10. **Bukatu:** 01:43:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolako umeak. Umetan ez zuten haiekin harremanik, baina gerora nerabezaroan bai. Udarari Urgulleko gaztelua izaten zen euren jolaslekua eta han elkartzen ziren beste ume euskaldun batzuekin. Zer jolas egiten zituzten. 16 urte ingururekin aitak gitarra erosi zion eta kolegioko moja batekin akordeak ikasita bere kabuz ibiltzen zen kantak ateratzen. Gero lagunartean jotzen zuen.

38. Donostian lehen baino euskara gutxiago entzuten da

- **Erref:** DON-210/060
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:43:49. **Bukatu:** 01:47:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen egoera Donostian. Gaur egun gehiagok dakite euskaraz, baina gutxi hitz egiten dutela dio. Gaztelaniaz egiteko joera dago eta euskara lehen baino gutxiago entzuten dela iruditzen zaio. Lehen Parte Zaharrean euskara entzuten zen eta tabernetan ere euskaraz eskatu zitekeen. Ez dago euskara babestu behar den sentipenik.

39. `La ratonera´ antzezlanak euskaraz Bartzelonan

- **Erref:** DON-210/063
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:49:25. **Bukatu:** 01:50:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Bartzelonan zeudela, `La ratonera´ antzezlanak euskaraz antzeztu zuten behin. Bartzelonako Euskal Etxeko jendea eta bertan bizi ziren euskaldunak joan ziren emanaldira. Hunkigarria izan zen.

Badiola Zubillaga, Klara | [ahotsak.eus](#) Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com